



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 24a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Príncipe de Viana aldizkariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiarri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak

emateko deialdiak 2014an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00127). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragileen lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2,5 lanaldi.
- Estellerrian: 2,5 lanaldi.
- Erriberan: 3,5 lanaldi.

2014. urtean 393.835,20 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	2,5	4	70.750,00	70.750,00	70.750,00
EDER PARTZUERGOA	3,5	4	99.050,00	99.050,00	86.493,53
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	12	155.650,00	155.650,00	155.313,30
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2,5	3	68.385,20	68.385,20	66.809,51
			393.835,20	393.835,20	379.366,34

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	309
EDER PARTZUERGOA	326
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	210
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	242
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	1.087

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2015ean izandako emaitzei

buruz (10-21/PES-00128). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragilean lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerrian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2015. urtean 396.200 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	5	99.050,00	99.050,00	98.818,60
EDER PARTZUERGOA	3	5	84.900,00	84.900,00	84.025,96
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	8	155.650,00	155.650,00	152.519,60
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	2	56.600,00	56.600,00	56.600,00
			396.200,00	396.200,00	391.964,16

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	279
EDER PARTZUERGOA	301
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	225
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	121
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	926

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei

loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzaitza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2016an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00129). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzaitza bultzatzen duten zerbitzuak

eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragileen lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2016. urtean 389.766,62 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontrataturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	5	99.050,00	99.050,00	99.050,00
EDER PARTZUERGOA	3	5	84.900,00	82.831,49	82.831,49
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	8	151.285,13	151.285,13	151.285,13
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	2	56.600,00	56.600,00	56.600,00
			391.835,13	389.766,62	389.766,62

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	280
EDER PARTZUERGOA	311
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	174
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	123
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	888

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2017an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00130). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragilean lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerrian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2017. urtean 395.380,44 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	5	99.050,00	99.050,00	99.050,00
EDER PARTZUERGOA	3	5	84.900,00	84.900,00	84.028,15
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	11	154.830,44	154.830,44	153.584,15
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	2	56.600,00	56.600,00	55.130,86
			395.380,44	395.380,44	391.793,16

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	250
EDER PARTZUERGOA	274
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	181
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	103
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	808

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2018an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00131). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragileen lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerrian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2018. urtean 395.970,67 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	6	99.050,00	99.050,00	98.949,58
EDER PARTZUERGOA	3	6	84.900,00	84.900,00	84.611,98
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	12	155.420,67	155.420,67	155.420,67
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	3	56.600,00	56.600,00	56.145,30
			395.970,67	395.970,67	395.127,53

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	257
EDER PARTZUERGOA	382
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	197
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	109
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	945

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2019an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00132). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragileen lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerrian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2019. urtean 396.200,00 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	6	99.050,00	99.050,00	99.046,95
EDER PARTZUERGOA	3	6	84.900,00	84.900,00	84.900,00
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	12	155.650,00	155.650,00	155.400,14
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	3	56.600,00	56.600,00	56.600,00
			396.200,00	396.200,00	395.947,09

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	275
EDER PARTZUERGOA	393
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	180
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	114
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	962

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozietako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2020an izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00133). Hona Nafarroako

Gobernuko Eskubide Sozietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. Ebazpen hori aldatu egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 4ko 2522/2014 Ebazpenaren bidez.

4.2 oinarriak enplegurako eta toki garapenerako eragileen lanaldi kopurua ezartzen du eskualdearen arabera:

- Mendialdean: 5,5 lanaldi.
- Erdialdean: 2 lanaldi.
- Estellerrian: 3,5 lanaldi.
- Erriberan: 3 lanaldi.

2020. urtean 396.200,00 euro eman ziren guztira, honela banaturik:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ENTITATEAK	Diruz lagundutako lanaldien kopurua	Kontraturiko pertsonen kopurua	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Justifikatu ondotik ordaindua
TEDER ELKARTEA	3,5	7	99.050,00	99.050,00	99.050,00
EDER PARTZUERGOA	3	8	84.900,00	84.900,00	84.900,00
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	5,5	14	155.650,00	155.650,00	155.650,00
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	2	3	56.600,00	56.600,00	56.600,00
			396.200,00	396.200,00	396.200,00

Arreta jasotako pertsonen kopurua honako hau izan da:

ARRETA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA	Arreta jaso duten pertsonen kopurua
TEDER ELKARTEA	229
EDER PARTZUERGOA	283
CEDERNA GARALUR ELKARTEA	192
ERDIALDEKO TOKI-EKINTZAKO TALDEA	86
ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK, GUZTIRA	790

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei ekintzailtza bultza-

tzen duten zerbitzuak eman ditzaten dirulaguntzak emateko deialdiak 2021ean izandako emaitzei buruz (10-21/PES-00134). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen ditu, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten. 2021eko deialdia oraindik ebatzi gabe dago, eta horregatik ezin dira eman eskatutako datuak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Príncipe de Viana aldizkariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Príncipe de Viana aldizkariari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 25eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-

21/PES-00135), jakin nahi baitu zein den Príncipe de Viana aldizkaria argitaratzeko atzerapenaren arrazoia. Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Ez da atzerapenik izan Príncipe de Viana aldizkaria argitaratzeko. 2020an aldizkari horren bi zenbaki argitaratu ziren, 276. eta 277. zenbakiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Kulturako kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakasleek maskarak erabili behar izateari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 25eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-21/PES-00137 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

1. Osasuneko kontseilariaren abuztuaren 28ko 40/2020 Foru Aginduaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian maskararen erabilera-ekin lotutako prebentzio neurriak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe eta unibertsitateetarako.

Foru agindu horren 4.1 apartatuak dioenez, maskararen erabilera ikasgeletan nahitaezkoa izanen da irakasleentzat eta laguntzako langileentzat. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak eta laneko arriskuen prebentzioko zerbitzu teknikoek hezkuntza maila bakoitzerako gomendatzen duten maskara mota erabili beharko da.

Foru agindu horrekin bat etorritik eta Osasun Ministerioaren gomendioei jarraituz, arau orokorgisa erabaki zen IIR maskara kirurgikoak erabiliko

zituztela Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Berezi-ko irakasleek eta maskara higienikoak gainerako irakasleek.

Martxoan, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Osasun Publikoaren Institutuak beharrezkotzat jo dute irakasleei eta laguntzako langileei eman behar diegun maskara mota aldatzea, halako moduan non hemendik aurrera Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Berezi-ko langile guztiek (maskararik ez duten ikasleekin lan egiten duten guztiek) FFP2 motako maskara erabili behar baitute, eta gainerako langileek IIR maskara kirurgikoa.

2. Erabaki horrek ez du inolako zerikusirik zure galderan aipatzen dituzun maskara erdi-gardenekin, horrelakoak ez baitira homologatu eta, beraz, horien erabilera ez baitago baimenduta ikastetxeetan.

3. Hezkuntza Departamentuak neurri hauek ezarri ditu komunikazioa errazteko:

- FM gailu berriak erostea, prestazio hobekak dituztenak.

- Lehendik dauden FM gailuak egokitzea, prestazioak hobetzeko.

- Banakako arreta ordu gehiago eskaintzea, hartara, babes neurri egokiekin (distantziak, bereizteko pantaila gardenak, arreta telematikoa), ikasleen eta irakasleen arteko harremanak ahalbidetzeko maskararik erabili behar izan gabe.

Iruñean, 2021eko apirilaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00138), Nafarroako Gobernuoko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emate aldera Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eta José Manuel Álamo Candelariak sinatutako laguntza teknikoak zenbait ekintza jasotzen ditu; besteak beste, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegi bat.

1.- *Hasierako proposamenean 16 orduko mintegi bat iragarri bazen ere, azkenean mintegia 20 ordukoa izanen da. Zergatik?*

2.- *Nafarroako Gobernuak adierazi zuen prestakuntza 20 ordukoa izanen zela, baina jardunaldia berez 12,5 ordukoa zen. Zergatik?*

3.- *Kontratuaren hasierako aurreikuspenean ezarritako gutxieneko orduak ez ziren bete. Zergatik?*

4.- *Ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu al zen, kontratatutakoa baino prestakuntza laburragoa egin zelako?*

5.- *Zenbat pertsonak eman zuten izena mintegian?*

6.- *Prestakuntzako 20 orduen zenbat egiaztagiria egin ziren?”*

Hona hemen erantzuna:

Parlamentari jaunak aipatu duen prestakuntza-mintegian oso handia izan zen parte-hartzaileen gogobetetze maila orokorra, bai edukien aldetik bai hizlarien aldetik. Halaxe ageri da ondorengo balorazioetan. Izan ere, parte-hartzaile guztiek gomendatuko lukete mintegia, eta guztiei beharrezkoak iruditzen zaizkie horrelako prestakuntza jarduerak, bizikidetzaren kudeaketan eta aniztasunaren kudeaketan era egokian aritzeko.

Aurrekoa esan ondoren —azpimarragarritzat jotzen baitut—, zure galderari erantzunen diet.

20 orduko mintegia iragarri zen, zeren, zuzeneko online formatuan eman beharreko prestakuntza orduz gain (13 ordu), ikasleei material osagarriak, aurkezpenak eta dokumentuak bidali baitzitzaizkien, irakurri behar zituztenak ikastaroan proposatutako gaitasunak eskuratzeko. Horrela lortutako ezagutzak amaieran egiaztatu behar ziren “Ezagutzen asimilazioa” izeneko probaren bidez. Horrek denbora-dedikazio bat eskatzen die bai ikasleei bai irakasleei, eta horregatik handitu ziren iragarritako orduen kopurua eta haien aitorpena.

Kontratuko hasierako aurreikuspenean 16 ordu ezarri ziren (horietatik 13 ordu eman ziren zuzeneko online formatuan). Gainerako orduen kopurua handitu egin da, aitortu eta aintzat hartu behar delako zer nolako dedikazioa behar den material osagarriak bidaltzeko, ezagueren asimilazioaren proba berrikusi eta zuzentzeko eta zalantzak argitzeko. Aurrean azaldutakoa dela-eta, ez da murriztu ordaindu beharreko zenbatekoa, uste dugulako lana ongi egin dela, proposamenean ezarritakoaren arabera.

Mintegian 57 pertsonak eman zuten izena eta haietatik 36 onartu ziren. Jasotako prestakuntzaren egiaztagiria eman zaie 17 pertsonari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00139 galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Ber-

nardo Ciriza Pérez jaunak idatziz erantzun dezan. Bertan honako galdera hauek egiten ditu:

- 2020ko ekitaldiko trafikoaren datu errealak, hilabetez hilabete, autobia horietan 2019ko ekitaldian izandako trafikoaren datu errealekin alderatuta.

- Zer metodo eta mekanismo baliatzen dira 2019ko eta 2020ko ekitaldietako trafikoaren datu errealak zehazteko?

- Zein da, zehatz-mehatz, autobietako kanoan direla-eta egindako abonamenduen eta autobia horietako bakoitzean 2019an eta 2020an izandako trafiko errealaren artean dagoen harreman zuzena?

Hona Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa: 2019ko eta 2020ko ekitaldietan A-12 eta A-21 errepideetan izandako trafiko errealari dagokionez, behean azaltzen dira datuak.

A-12 errepidea. 2019

Hilabetea	Arinak	Astunak	Guztira
Urtarrila	22.304.563	2.984.961	25.289.524
Otsaila	22.276.216	2.897.217	25.173.434
Martxoa	25.478.067	3.159.884	28.637.951
Apirila	25.328.131	3.140.360	28.468.490
Maiatza	26.667.975	3.460.135	30.128.110
Ekaina	26.635.864	3.242.252	29.878.116
Uztaila	27.341.476	3.457.956	30.799.431
Abuztua	27.342.574	2.921.701	30.264.275
Iraila	26.021.987	3.227.890	29.249.877
Urria	27.028.093	3.608.424	30.636.517
Azaroa	24.150.355	3.042.466	27.192.821
Abendua	23.541.524	2.627.841	26.169.366
2019, guztizkoa	304.116.827	37.771.086	341.887.913

A-12 errepidea. 2020

Hilabetea	Arinak	Astunak	Guztira
Urtarrila	22.831.006	2.963.218	25.794.224
Otsaila	23.794.617	2.997.587	26.792.204
Martxoa	13.757.604	2.660.482	16.418.086
Apirila	5.936.188	1.841.697	7.777.885
Maiatza	13.067.555	2.438.599	15.506.154
Ekaina	20.770.172	2.897.944	23.668.116
Uztaila	25.301.532	3.234.274	28.535.806
Abuztua	24.924.659	2.757.435	27.682.094
Iraila	24.118.945	3.080.074	27.199.019
Urria	22.518.634	3.220.779	25.739.413
Azaroa	19.302.241	3.004.885	22.307.126
Abendua	18.747.091	2.600.638	21.347.729
2020, guztizkoa	235.070.244	33.697.612	268.767.856

A-21 errepidea. 2019

Hilabetea	Arinak	Astunak	Guztira
Urtarrila	9.539.995	525.594	10.065.589
Otsaila	11.046.397	527.522	11.573.920
Martxoa	13.415.892	576.789	13.992.681
Apirila	11.751.338	552.879	12.304.217
Maiatza	10.542.080	602.342	11.144.422
Ekaina	11.841.508	611.469	12.452.978
Uztaila	13.314.273	645.421	13.959.694
Abuztua	16.195.745	588.371	16.784.115
Iraila	11.862.461	606.971	12.469.433
Urria	11.464.537	631.539	12.096.076
Azaroa	9.836.145	508.754	10.344.898
Abendua	12.309.284	438.041	12.747.325
2019, guztizkoa	143.119.656	6.815.691	149.935.348

A-21 errepidea. 2020

Hilabetea	Arinak	Astunak	Guztira
Urtarrila	11.193.093	498.067	11.691.160
Otsaila	11.396.224	505.635	11.901.859
Martxoa	6.274.953	459.643	6.734.596
Apirila	2.535.094	359.115	2.894.209
Maiatza	5.617.549	443.121	6.060.670
Ekaina	9.560.170	517.290	10.077.461
Uztaila	14.298.650	593.649	14.892.299
Abuztua	16.312.079	552.484	16.864.562
Iraila	11.982.693	599.179	12.581.872
Urria	10.734.396	589.615	11.324.012
Azaroa	7.939.510	549.668	8.489.178
Abendua	7.673.698	462.130	8.135.829
2020, guztizkoa	115.518.109	6.129.597	121.647.705

Bigarrenik, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan trafikoaren datu erreala zehazteko erabilitako metodo eta mekanismoei dagokienez, nabarmendu behar da kasuan kasuko Ustiapenerako Laguntza Teknikoak egiten dituela bi errepide horietako trafikoari buruzko txostenak. Horretarako, kontsultak egiten dituzte trafikoko baseetan, horiek egunero informazioa jasotzen baitute zuzenean, autobietan zehar kokatutako trafiko-estazioetatik.

Aldian behin sistema osoaren eta haren funtzionamenduaren egiaztapenak egiten dira bideoz. Aipatu laguntza teknikoek egiten dituzte egiaztapenak, eta Zainketa Zerbitzuak gainbegiratzen ditu.

Azkenik, autobietako kanonak direla-eta egin dako abonamenduen eta autobia horietako bakoitzean 2019an eta 2020an izandako trafiko erreala-aren artean dagoen harreman zuzenari dagokionez, hau azpimarratu behar da: bi autobietan, ekitaldian ordaindu beharreko eskari-kanona honela kalkulatu da: aurreko urtean autobiak izan duen trafiko erreala bider oraingo ekitaldirako

onetsitako tarifak; tarifa horiek KPlarekin eguneratzen dira, kontratuetako bakoitzean jasotakoaren arabera.

A-12 autobian (Bideko Autobia) aparteko kontserbazio-kanona ere badago, eta modu berean kalkulatu da, baina aparteko kontserbazio-tarifak erabiliz, horiek ere eguneratuta.

Horrela kalkulatu da urteko zenbatekoa hileko ordainketetan zatitzen da.

Aurrekontuan, ekitaldi bakoitzari egozten zaizkio aurreko urteko abendua eta ekitaldi horretako urtariletik azarora bitarteko hilabeteak.

Ekitaldia amaitu eta errepide bakoitzak izan duen trafiko erreala ezagutu ondoren, aurreko ekitaldiko trafikoarekiko aldea erregularizatu egiten da, aurreko ekitaldiko trafikoaren arabera zenbate-tsi baitziren hileroko ordainketak, eta hurrengo ekitaldian likidatzen da diferentzia, emakidadunaren alde nahiz Administrazioaren alde.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00141), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Legegintzaldia hasi zenez geroztik zer egin da gezurren aurkako eta inklusioa eta pluraltasuna bezalako auzien balioa nabarmentzen dituzten albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeko? Horri buruzko lanik egin al da Unibertsitateko Departamentuarekin lankidetzan?”

Hona hemen erantzuna:

Departamentu honek bere apustu nagusieta-koa izan du Nafarroako pluraltasunaren eta kulturen arteko bizikidetzaren balioa nabarmentzea. Gezurrei eta informazio faltsuari, epe ertainean eta luzean, egiazko informazioaren isuri xehearekin eta sentsibilizazioarekin egiten zaie aurka. Horregatik, legegintzaldiaren hasieratik hainbat

ekintza burutu ditugu, eta horietako batzuen berri zehatza emanen diot parlamentari jaunari.

Ongi dakizunez, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak antolatuturik, zurrumurruren kontrako prestakuntza-ikastaroak egiten ari dira: Zaskak ematen du prestakuntza, eta helburuetako bat da sakonean aztertzea zer gako eta argudio erabil daitezkeen kontra egiteko Nafarroan bizi diren atzerritar edo beste etnia eta kultura batzuetako pertsonen gaineko diskurtso kriminalizatzaile, estereotipo, aurreiritzi, zurrumuru eta bereizkeriei. 2020an zazpi prestakuntza-ekintza egin ziren toki entitateetan eta Nafarroako Gobernuan, eta 2021erako hogeit hamar prestakuntza-ekintza daude aurreikusirik.

Azpimarratu nahi dut, halaber, sentsibilizazioaren arloan, hamabostean behingo irratiaio bat dagoela 2021eko lehen seihileko honetan, Koloretako Nafarroa deitu diogun horren balioa nabarmentzen duena, alegia, pluraltasunak eta kulturen arteko bizikidetasunak aberasten duten gure lurralde honen balioa.

Printzipio horiek berek eragin zuten “Funtsezkoak” kanpaina, COVIDaren kontrako borrokan Nafarroako migratzaileek funtsezko arlo batzuetan betetzen duten eginkizuna nabarmentzea helburu izan duena. Kanpaina hori 2020ko abendutik 2021eko urtarrilera bitartean egin zen, askotariko euskarri ordainduak erabiliz (prentsa, irratia, telebista, sare sozialak eta kanpokoak). ADIF, Alsa, Correos eta beste enpresa batzuen gizarte erantzukizun korporatiboari esker luzatu eta handitu egin zen eta kontratatuturikoa baino askoz zabalagoa izan zuen benetako eragina.

Era berean, Iruñerriko Mankomunitatearekin batera sentsibilizazio ekintza bat egin berri dugu kanpoko laguntzarekin (sare sozialetako edukiez indartu da), arrazakeriari eta xenofobiari aurka

egiteko. Ekintza horrek estaldura nabarmena izan du gure lurraldeko nahiz Estatuko hedabideetan, eta gure lurraldean bereizkeria arrazistak jasan dituzten pertsonen salaketek hedabideetan oihartzuna izateko balio izan du.

Ez da Unibertsitate Departamentuarekin inolako elkarlanik izan arlo horretan, zure bigarren galderari erantzunez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 10-21/PES-00142 galdera idatzia egin du. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

1. Eroslehentasun-eskubidea egikaritzen da, kasua bada, etxebizitza babestuen salmentaren jakinarazpenen gainean, pertsona interesdunek jakinarazpen horiek aurkezten dituztenean libreki eta beren borondatez. Era berean, haiek erabakitzen dute noiz aurkeztu jakinarazpena.

2. Ez dago justifikatu edo frogatu beharrik etxebizitza saltzearen arrazoiak.

3. Norbaitek eskaera deuseztatu edo bertan behera utzi nahi badu, edonoiz egin dezake, ez bada jada egikaritu eskubidea, administrazio-ebazpen baten bitartez.

4. Ebazpen horren kontra, halakorik baldin bada, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, kontseilari honi zuzenduta. Errekurtsogilearen arrazoiak, argudioak eta horien frogak aurkeztu behar dira.

5. Errekurtsua ezesten bada, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar dezake Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ezespena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

6. Behin eskubidea egikaritu eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak etxebizitza eskuratuta, eragindako pertsonak bere etxebizitza babestua hirugarren pertsona bati salduta kobratuko lukeen adina jasoko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak 10-21/PES-00143 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsaren bitartez, 2020ko azaroaren 12an eta 2021eko otsailaren 17an industria erabilerako lurzati batzuk erosi ditu, guztira 30.542,89 m², eskualdean jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko, berehala eskuratzen ahal den lurzoru urbanizatua eskainiz interesa duten enpresei.

Etorkizunerako asmoei dagokienez, lur gehiago erosiko lirateke baldin eta eskuragarri dagoen azalera baino eskari handiagoa izanen balitz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena